# IPAR EUSKAL HERRIKO HIRUGARREN IBILBIDE ESKULTURALA, MARMAUKO GUNEAN, HAZPARNEN (64).

**Marmau elkartea**
**Elizaberri auzoan**
**64240 Hazparne**
**Helbide elektronikoa : marmausculpturel@gmail.com**
**Bloga : marmau.eklablog.com**

## Kandidaturen deia
## 2014ko MARMAUren hirugarren gune eskulturala

MARMAU elkarteak erakusketa eskulturala bat antolatzen du arte eta ibilbide bide baten bitartez, Hazparneko aparteko gune natural batean, iparraldeko Euskal Herrian, Pirinio atlantikoetan (64). Manifestaldiaren helburua, gaur egungo eskultura bere aspektu guzietan erakustea eta lotura egitea da natura eta eskulturaren artean. Hazparnen, Baionatik hurbil, manifestaldiak 6 hilabete iraunen du, maiatzatik iraila arte. Inaugurazioa ekainean eginen da. Datak zehazki laister emanak izanen dira.

Eskulturak ezarriak izanen dira gutti gora behera 3 kilometroko ibilaldian, hogei bat obrekin.

Bidexendra eskulturala idekia izanen da edozein eskultura formeri, instalazioei eta (land-art) bainan lehentasuna emana da substantziari garrantzia ematen duten obreri, erabiliak diren materialak kontutan hartu gabe. Obrak harremanetan sartuko dira gunearekin, naturaren bat eginez.

Lan eskulturalak azkarki finkatuak izan behar dira haizea eta animaleak jasateko (pottokak, ardiak…) gune n aske izanen baitira. Eskulturak betoiezko harri zabalezko oinarrien gainean ezarriak izanen dira.

MARMAU elkartearen administrazioko kontseiluaren kideek dosierrak hautatuko dituzte eta guneko artezaleen laguntzarekin.

Kreazioentzat, lortzen baldin baditugu diru laguntzak tokiko eta departamenduko, elkarteengandik udan zehar laguntza bat emana izanen da partaideeri. Aurten, oraingo ustez bederen 500 eurokoa izanen da.

**Bidali behar den eskaera orria, 2014ko Martxoaren 15 a data aintzin :**

Martxoan erabakia hartua izanen da hautatutako obrak eta erantzuna emana hilabetearen bukaeran:

**MARMAU elkartea, Elizaberri auzoa 64240 Hazparne** edo **imailez**

- Obraren aurkezpen orria edo orriak: argazki baten bidez, idatzi batekin edo projektuaren marrazki batekin... nahiagotasun bat CD entzat
- Eskultorearen aurkezpen orria
- Gutun azal bat tinbratua zuen helbidearekin zuen dosiera berritz igortzea nahi baldin baduzue
- Erantzunarentzat ez baduzue helbide elektronikorik gutun azal bat tinbratua

***Osagebeak edo laburregiak izanen direnen dosierak ez dira kontutan hartuak izanen.***

Fitxetan diren informazioak erabiliak dira komunikazio euskarrientzat, publikoari eta bazkideeri zuen aurkezpena egiteko, haien galderei erantzuteko: milesker betetzea otoi.

Partaide bakotxak hitz ematen du tenorez montatzea eta desmuntatzea haien obrak, biltzarkideen laguntzarekin beharrezkoa baldin bada. Zuen projektuak eraikitzeko, bertan makinak aurkituko dituzue , adibidez traktoreak sardekin. Antolaketa hasten da hilabete bat idekidura aintzin eta desmuntaketa manifestaldia bukatuta.
Manifestaldiaren bukaeran, geldituko diren obrak elkartearen bazkideek atxikiko dituzte artistak etorri arte berreskuratzeko.

MARMAU elkarteak ez du portzentairik hartzen salmentetan. Eskultoreak arduratzen dira esposatzen dituzten obreetaz, MARMAU elkarteak ez ditu bere gain hartzen. Eskultore bakotxak posibilitate izanki izenpetzeko nahi duen asurantza. Sortzailea arduratzen da obraren/obreen mantentzea behar baldin bada esposizioaren zehar.
Publizitatearen beharrarentzat, sortzaileak bere deretsoak obren argazkien zabalkuntza eta itxurapenaren gainean eman behar ditu. Galdegina izanen da sortzaile bakotxari Marmau elkartean sartzea (20€).
Informazio gehiago ukaiteko gurekin harremanetan sartu.

Lotura egiteko herri bihotza eta gunearen artean, denderi proposatzen dugu exposatzea tamaina ttikiko obra bat (edo batzuk) manifestaldia zehar. Interesik baldin baduzue proposamen berri honentzat, dosieran ezarri proposatutako obren argazkiak. Arduratzen gira harremanetan ezartzea artista eta denda.

# Obren aurkezpen fitxak

(**egin fitxa bat obra bakotxarentzat**)

Obrak aski azkarrak izan behar dira eta ongi finkatuak haizeak eta animaleak jasateko.

**Gehitu obra bakotxarentzat :** kalitatezko argazkiak eta/edo projektuaren deskribapen bat (azalpenak, marrazkiak, CDrom…)

| **Obra 1 :** |
|---|

Titulua1 :

Tamainak : Pisua (gutti gora behera) :

Erabiliak diren teknikak et materialak:

Finkagailuak : prezioa :

Ba ote duzue zuen obrak ezartzeko gune gogokoen bat : (ikus elkartearen web guneko planoan).

Obra aurkezten duen textua : *obren aurkezpena afitxatuak izanen dira obren ondoan eskulturaren izena eta tituluarekin, frantsesez eta euskeraz (elkarteak egiten ahal du itzulpena)*

Arazo tekniko bereziak :

# Eskultorearen aurkezpen fitxa

Milesker ezartzea behar diren dokumentu guziak: Curriculum, liburu, CDRom, argazkiak, idatziak, zitazioak….

ABIZENA et izena :

Menturaz izengoitia (<u>komunikazio euskarrientzat emana izanen den artistaren izena</u>)

Helbidea :

Telefonoa (k) :

Helbide elektronikoa :

Web gunea:

Maison des Artistes :

Agessa :

Siret :

Elementu biografikoak eta ibilbide artistikoa (berriki egindako esposizioak):

Urrats artistika :